

KULTURA ETA BOTEREA

Geopolitikak agintzen du Unescoren zuzendari nagusiaren aukeraketan

Gabriela Ramos Patiño mexikarra, Khaled Ahmed El-Enany Ali Ezz egiptoarra eta Firmin Edouard Matoko kongoarra izango dira Unescoko Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeko zuzendari nagusi den Audrey Azoulay frantziarraren lekua hartzeko hiru hautagaiak. Euren herrialdeek proposatu zituzten, eta azken zerrenda martxoan mugatu zuten. Hala ere, Unescoren zuzendari nagusia izango dena aukeratzeko sei hilabete falta direnean, kanpaina gogortu egin da azken asteetan, eragin-jokoen eta filtrazioen artean.

GEOPOLITIKAREN MENDE

Izan ere, zuzendari nagusiaren hautaketan eztabaida geopolitiko eta diplomatiko handiak izan dira Unesco 1945ean sortu zenetik. Esan gabe doa Gerra Hotzak eragina izan zuela estatu kideen hautagaitzetan eta erabakietan, edo erakundearen paperari eta orientazioari buruzko ikuspegi desberdinek eztabaida biziak sortu zituztela herrialde-blokeen artean. 2009an, esaterako, Farouk Hosni egiptoarraren hautagaitza lausotu egin zen ustezko adierazpen «antisemitengatik», oposizio handia sortu zutenak Mendebaldean. Polemika Irina Bokova bulgariarraren hautaketarekin amaitu zen, erakundea gidatu zuen lehen emakumea eta Ekialdeko Europako lehen ordezkaria, hain zuzen ere.

Lau urteko bi agintaldiren ondoren, 2017an, Audrey Azoulay hautatu zuten zuzendari nagusi, Ekialde Hurbileko tentsio une baten erdian eta AEB eta Israel Unescotik erre-

 **POLITIKA /** Ibai AZPARREN

Hauteskundeak 2025eko urrian izango dira, eta duela aste batzuetatik filtrazioek gora egin dute Unescoren zuzendari nagusi izateko hautagaitzak lausotzeko, baita nazioarteko blokeen eragina ere. Gabriela Ramos Patiño, Khaled Ahmed El-Enany Ali Ezz eta Firmin Edouard Matoko dira Audrey Azoulay ordezkatzeko hiru hautagaiak.

tiratu ondoren, erakundeak Estatu sionistaren aurkako jarrerara zuela argudiatuz. Azoulay, Estatu frantseseko Kultura ministro ohia eta jatorri judua zuena, adostasun figura gisa ikusi zuten, erakundearen barruan eztabaida sakonak zeuden une batean.

Baina haren hautagaitzak oposizio gogorra izan zuen

hainbat herrialde arabiarren aldetik. Qatarreko hautagaia, Hamad bin Abdulaziz Al-Kawari, hasiera batean faborittoa zena, Israelen aurkako adierazpenen inguruko salaketek oztopatu zuten, Qatarren eta Golkoko beste herrialde batzuen (Saudi Arabia eta Egipto, esaterako) arteko krisi diplomatikoak ere eragina izan zue-

Behean, ezkerretik eskuinera, Firmin Edouard Matoko, Gabriela Ramos Patiño, Audrey Azoulay eta Khaled Ahmed El-Enany, hautagaitzen aurkezpenean, pasa den martxoan, Parisen. UNESCO

larik. Azken bozketan, Azoulay nagusitu zen aldeko 30 boto-rekin eta kontrako 28rekin, Unescoko lehen zuzendari nagusi judua bihurtuz.

Aurrekari horiek kontuan hartuta, hiru hautagai berrien aurkezpenak martxoan izan ziren, NBEren erakunde honek Parisen duen egoitzan, baina hauteskunde kanpaina aste batzuk lehenago hasia zen.

EL ENANY «APOLITIKOA»

2023ko apirilean bere burua aurkeztu zuen lehena El Enany izan zen, eta ordutik, 54 urteko egiptologo ospetsu eta Egiptoko Turismo ministro ohia munduan zehar saltoka ibili da, babes eta laguntza bila.

Gizan 1971n jaioa, hautagai faborittoa da, Afrikako Batasunaren, Arabiar Ligaren, Turkiaren, Alemaniaren, Brasilen eta Espainiako eta Frantziako estatuen babesa lortu baitu. Abenduan, gainera, Noël Nelson Messone gabondarrak uko egin zion bere hautagaitzari, «Afrika batu» baten izenean.

Baina martxoaren 13an, hautagaitzak itxi eta bi egunera, Ramos mexikarra, 61 urtekoa eta Unescoren Gizarte eta Giza Zientzietarako zuzendariorde nagusia, eta Matoko kongoarra, 69 urtekoa eta Afrikarako zuzendariorde nagusia, ezustean aurkeztu ziren.

Azken hautagaitza honek asko harritu zuen El Enany, kontinenteko banderadun gisa aurkezten zena, kargua hartzen zuen bigarren afrikarra eta lehen arabiarra izateko. «Kongok bere arrazoiak izan behar ditu hautagaitza hau aurkezteko, baina ez da ona Afrikarentzat, postua galtzeko arriskua baitu», esan zion egiptoarraren inguruak AFPri.

Bere postulatuak dagokie-nez, El Enanyk garrantzitsu-



tzat jotzen du Unescok bere politizazioa saihestea. «Unesco ez da arma politiko bat, arma intelektual bat baizik», adierazi zuen; bere ustez, Segurtasun Kontseilua eta Nazio Batuen Batzar Nagusia gai politikoetarako baitaude. «Unesco hezkuntzan, laborategietan, zientzian eta ikertzaileetan kontzentratu behar da, kazetariak babestu behar ditu, kultura-ondarearen alde lan egin behar du, ondarearen trafikoa- ren aurka borrokatu behar du. Hori Unesco da. Eta hori egiteko ez da politika behar», azpimarratu zuen.

Gainera, AEBek erakundean jarraitzea espero du. Washingtonek bi aldiz utzi zuen Unesco: lehena 1983an, Ronald Reagan presidente zela, eta bigarrena 2018an, Donald Trumpen lehen agintaldian, nahiz eta bi kasuetan erakundearen barnera itzuli zen.

Orain, Trumpen administrazio berriaren mehatxuen beldur da; izan ere, AEBek Unescori egindako ekarpenari buruzko «berrikuspen bizkorra» iragarri zuen presidenteari, «sentimendu erradikalak edo AEBen aurkakoak» sustatzen dituzten nazioarteko erakundeen, konbentzioen edo tratatuen inguruko txosten baten barruan.

RAMOS ETA MULTILATERALISMOA

Parisen hautagaitzak aurkeztu baino ordu batzuk lehenago, beste gertaera batek hautapen-prozesua astindu zuen. «Africa Intelligence» webguneak Unescoko herrialde arabiarren taldeak Kontseilu Exekutiboko presidenteari bidalitako gutun bat argitaratu zuen. Bertan, hautagaietako bati buruzko «informazio kezagarriari» buruzko «argibideak» eskatzen zizkieten.

Urrian, estatu kideek lau urtean behin aukeratzen dituzten 58 kidez osatua den Kontseilu Betearazleak isilpeko botoaren bidez aukeratuko du zuzendari berria

Hauteskunde horren garailea, orduan, Konferentzia Orokorrari proposatuko zaio, non estatu kide guztiak ordezkaturik dauden, eta azaroan izendatuko dute Samarkandan

Bere izena aipatu gabe, apirilaren 7ko gutuna, AFPk kontsultatu ahal izan zuena, Gabriela Ramosen aurkako barne-salaketa bati buruzkoa zen. Mexikarra lan jazarpenagatik salatu zuten, eta barne kontroleko zerbitzuen dibi-sioak salaketa ikertu zuen, baina emaitza ez da publiko egin. Prozedurak orain arte ez du zehapenik ekarri.

«Egun, Mexikoko gobernuari ez zaio ofizialki inolako inputaziorik jakinarazi», ziurtatu zuen kanpainako taldeak AFPri bidalitako adierazpen batean. Izan ere, Claudia Sheinbaum presidentea izan da Ramosen babesle nagusia.

Ramos 1964an jaio zen, Michoacan estatuan, eta ekonomialaria eta diplomatikoa da lanbidez. Nazioartean ibilbide sendoa duen figura da, erronka globalekiko ikuspegi aurrerakoa duena.

Aitzitik, hautagai egiptoarra, Abdel Fattah el-Sisiren gobernuarekin harreman estuen historia duena, egonkortasunaren eta kontrolaren agenda indartu dezakeen figura gisa ikusten dute, ikuspegi pragmatiko batekin eta, agian, eskualdeko interes geopolitikoekin bat datorrena.

Horrela, Ramosek, multilateralismoaren defendatzaile sutsuak, nazioarteko ordena eta bereziki Nazio Batuen eta

Goitik behera, Gabriela Ramos Patiño, Khaled Ahmed El-Enany Ali Ezz eta Firmin Edouard Matoko hautagaiak.
IVIT IMANEK-CTK-EUROPA PRESS-UNESCO



bere agentzien zeregina zalan-tzan jartzen dituen etapa bati aurre egin beharko dio, hautatzen baldin badute.

MUTOKO, AFRIKA

Firmin Edouard Matokok osatzen du zerrenda. Brazzavillen jaio zen 1956an, eta gatazkak eta berreraikuntzak markatutako historia islatzen du. Afrika nazioarteko lankidetzan eta garapenean oinarritutako ikus-

pegi bat eskaini lezake, kontinentearen problematikak Unescoren bidez ikusaraztea bilatuz.

Ramos bezala, multilateralismoaren defendatzailea da, eta haren ikuspegiak Afrikako dinamiken ulermen sakona eta ikuspegi globala uztartzen ditu. Unescok, XXI. mendean izan zuen etengabeko eraldaketa eta garrantziarekin konprometitutako hautagai gisa kokatzen du.